BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3757

AGINDUA, 2012ko uztailaren 17koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Vitoria-Gasteizko (Araba) «Jesús Obrero» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena emateko dena.

Vitoria-Gasteizko (Araba) «Jesús Obrero» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena eskatuz, ikastetxe horren erakunde titularra den «Fundación Jesús Obrero» erakundearen legezko ordezkariak abiarazitako espedientea aztertu da.

Espediente hori Arabako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak izapidetu du, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: Heziketarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa, Ikastetxe pribatuetan unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duen otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretua, eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– «Jesús Obrero» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena ematea: egun titulartasuna «Fundación Jesús Obrero» entitateak du eta aurrerantzean «Fundación Diocesanas-Jesús Obrero Fundazioa» entitateak izango du; berak subrogatuko ditu ikastetxearen betebehar eta zama guztiak. Ikastetxea Vitoria-Gasteiz udalerriko (Araba) Frantzia kaleko 32. zenbakian dago, eta 01001531 kode-zenbakia du.

2. artikulua.– Titulartasun-aldaketa Ikastetxeen Erregistroan inskribatuko da, baina horrek ez du inolako eraginik izango ikastetxearen ohiko jardunean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek 2012ko irailaren 1etik aurrera ekarriko ditu ondorioak.

Bigarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 17a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.